



Pasaden ostiralean EH-Bilduk errefuxiatuek bizi duten egoera erakusten duen argazki erakusketa bat jarri zuen Barakaldoko Bide Onera plazan. Bi orduz barakaldarrek ikus ahal izan zuten zein den pertsona hauek bizi duten egoera. Ekimen hau, EH-Bilduk eta Europako Ezker Unitarioa/Ezker Berde Nordikoa taldeak martxan jarri duten dinamikaren barnean kokatuta dago, dinamika honen helburua Europar Batasunak errefuxiatuekin duen jarrera salatzea da. Salatzen dute Europar Batasuna errefuxiatuen eskubideen babesle gisa agertzen den bitartean, errealitatea ezkututzen eta errefuxiatuen eskubideak urratzen dituela. Gainera azpimarratzen dute, Europa eta potentzia handiek direla errefuxiatuen egoeraren erantzuleak, nazioartean eramaten duten politikaren ondorioz sortu baita arazo hau.

alt=""

swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/ztSRuV7ixsQ','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'}',{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});